

JARDUERAK AZTERTZEKO

Sekuentzian proposatzen diren jarduerak hiru fasetan daude antolatuta?

Planifikazioa
Gauzatzea
Erabiltzea

Planifikazioa proposatzen diren jardueren bidez...

- Ikasleek lana erraz irudikatu dezakete?
- Proiektua eta helburuak aurkezten dira?
- Ikasleek badakite zer egin eta zer ikasiko duten?
- Motibazioa lantzen da?
- Aurre ezagupenak azaleratzeko jarduerarik bai?

Gauzatzea fasean...

- Komunikazio egoeraren osagaiei buruzko hausnarketa bultzatzen da?
- Testua ekoizteko beharrezkoa den informazioa biltzen da?
- Testuaren egitura lantzen da?
- Zirriborria idazten edo ahoz adierazten da?
- Zirriborria berrikusten da?
- Testuaren edukiak lantzeko jarduerarik proposatzen da?
- Testuaren forma lantzeko jarduerarik proposatzen da?
- Jarduera guztiak esanguratsuak dira ataza burutzeko?
- Jarduera guztien arteko lotura agerikoa da?
- Prozedurazko ardatza errespetatzen da?
- Hizkuntzaren inguruko hausnarketa lotua dago azken ekoizpenarekin?
- Jarduera batzuek ebaluazio hezigarria bideratzeko balio dute?
- Zenbait jardueratan prozesuari eta hausnarketari laguntzeko tresnak (kontrol orriak, txantiloak...) proposatzen dira?
- Ikasleen taldekatze anitzak proposatzen dira?
- Ikasleen lan kooperatiboa proposatzen da?

Erabiltzea fasean ...

- Ekoizitako lana jendeaurrean agertzeko proposamenik ageri da?
- Prozesuaren ebaluazioa egiteko jarduerarik ageri da?

